



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 26a

18. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, AP-15ean hasitako sutearen ondorioak arintze aldera eta suteak kaltetutako eremuak lehengorazte aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriei eta jarduketan planifikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Iruñean, Lizarran eta Tuteran erresonantzia magnetikoen zerbitzua emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzuko itxarote-zerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehenasunezko programak” kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, behar adina ikasgela ez edukitzeagatik ikasgela bakoitzeko 25 ikasleko ratioa berreskuratu ezin izan duten ikastetxe publikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak bertan behera utzitako edo geroratutako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, AP-15ean hasitako sutearen ondorioak arintze aldera eta suteak kaltetutako eremuak lehengoratzeko aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriei eta jarduketan planifikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, AP-15ean hasitako sutearen ondorioak arintze aldera eta suteak kaltetutako eremuak lehengoratzeko aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriei eta jarduketan planifikazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 30eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16-/PES-00332), AP-15ean –Tafallako udal-mugartean– abuztuaren 25ean hasitako sutearen ondorioak arintze aldera eta suteak kaltetutako eremuak lehengoratzeko aldera Nafarroako Gobernuak asmotan dituen neurriei eta jarduketan planifikazioari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Irailaren 8an, lehenengo bilera bat egin genuen istripuak ukitutako toki entitateetako ordezkariekin. Bilera horretan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak udal guztiei txosten exhaustibo bat igorri zien kaltetutako landarediaren tipologiari buruz, udalerrriaren azalerei buruz eta egin beharreko urratsen plangintzari buruz.

Txosten horrek alde zuzeneko aurretiko izaera zuen, eta haren helburuetako bat zen toki entitateek berrius ezazten Puiun irailaren 15ean egin zen bilera teknikoan ekarpenak aztertu ahal izateko.

Bilera horretan, kalteak berrikusi ziren, bai taulatan, bai planoen gainean, eta garatu beharreko lanak buruzko lehen plangintza egin zen. Hobekuntzarako jarraibideak dokumentazioan jaso ziren, eta bertaraturakoen zalantzak argitu ziren.

Bileran atera ziren gai garrantzitsuenak –bileraren akta egin zen, eta toki entitateei bidali zitzaizkien– lau arlo nagusitan bil daitezke: baso-lursailen egoera eta haien lehengoratzeari ekiteko jarduketa plana; ehiza eta kaltetutako azpiegiturak, eta boluntarioekin etorkizunean egin zitezkeen lanak.

Testuinguru horretan, bi gai aipatu ziren: boluntarioek su-itzaltze lanetan egindako lana eta boluntarioek lehengoratzeko lanetan parte hartzeko aukera.

Lehenengo gaiari dagokionez, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak Suhiltzaileen Zerbitzuarekin jarri zen harremanetan, eta azken horrek jakinarazi zuen boluntario horiei prestakuntza eta laguntza emateko prest zegoela, Natur Ingurumenaren eta Basozaintza Zerbitzuko teknikariekin batera. Prestakuntza, zabalkunde, informazio eta abarrekoko ekintza horiek 2017ko lehen hiruhilekoan hasiko direla aurreikusi da, toki ekintzako taldeen laguntzarekin; hasi hasiko da suteak kaltetutako eremuetan jada interesa erakutsi dutenekin, egin zuten lan itzela gogoratuta.

Baso-lehengoratzeko lanetan boluntarioek parte hartzeko aukerari buruz, Puiun egindako bileran toki entitateei jakinarazi zitzaizkien lehenengo eta behin 2017ko udaberri arte itxaron beharra zegoela ukitutako baso-lursailen bilakaera egiaztatzeko. Une horretara arte ezin izanen da jakin zein jarduketa mota garatu beharra dagoen. Jarduketa horiek, nolahi ere, Quercus generoko

baso-masetan zentratuko litzateke, bai eta sasi-eremuetan ere. Ekintza horiek honakoak izanen lirateke: basogintza-lan txikiak eta haritzak landatzea. Baldin eta ekintza horiek beharrezkoak badira, toki entitateekin, erakunde interesdunekin eta toki ekintzako taldeekin antolatuko dira.

Edozein zalantza arin argitzeko asmoz, Departamentuan arlo bakoitzaren ardura duen unitatearen telefonoa eman zen.

Zehazki parlamentu-galderari dagokionez, hau da, kaltetutako eremuak lehengoratzeko neurri eta plangintzari dagokionez, honako hau informatu behar dugu:

1. Suteak kaltetutako azaleraren % 41 basoa da, eta ohiko mosaiko mediterranea dela esan daiteke, nagusiki lehorreko nekazaritza-lursailek, artadiak eta abariztiak osatuak, sastraken formazioekin eta alepo pinuaren eta, neurri txikiagoan, eta larizio pinuaren basoberritzeekin.

2. Mosaiko horrek iraun egin behar du, eta lehengoratzeko-ekintzek helburu hori segurtatu behar dute. Suteak kaltetutako lur guztien erabilera ezin da aldatu.

3. Lurraldearen kudeaketa integral bat behar da.

Lehenengo puntu horiek oinarritzko baldintza gisa hartuta, irailaren 15eko bileratik suak hartutako eremuaren jarraipena egin da, eta honako hauek egiaztatu ahal izan ditugu:

1. Aipatutako bileran ezagutzera eman zen bezala, ukitutako landaredia mediterranea ernaberritzeko eta berezko birsorkuntza naturalerako ahalmen handia du; hori dela eta, haren portzentaje handi bat modu naturalean ernaberritu eta birsortu eginen da. Hori egiaztatu ahal izan da jada, eta ukitutako pinudiek modu naturalean birsortzen hasi dira, eta harizti eta artadien eremuetan landarediaren ernaberritzea hasia da jada.

2. Zehazki alepo pinuaren basoberritzei dagokionez, esan beharra dago espezie horrek izaera pirofitoa duela eta jada birsortu egin dela. Hori dela eta, behin egitate hori egiaztatuta, zenbait bisita tekniko egin dira lur horietara, suak hartutako zura ateratzeko izapideak hasteko eta hartara lortutako birsorkuntzaren bideragarritasuna bermatzeko. Une honetan, datu guztien arabera ekonomikoki egingarria da kaltetutako zuhaitzak ateratzeko lanei ekitea; hori dela eta, urriaren 11n, bilera bat egin da Erdialdeko Partzuergoarekin.

a. Kaltetutako basoberritze-masei buruzko informazio guztia jakinarazi da, udalerrria eta bolumenari buruzko kalkulua adierazita.

b. Jakinarazi da ezen, baso-aprobeta-entitateek lanen kudeaketa Partzuergoari laga behar diotela, hartara arintasun administratibo handiagoa segurtatzeko eta lanen kudeaketa ego-kiagoa bideratzeko.

c. 20 eguneko epea proposatu da baterako eskaera hori aurkezteko. Une horretatik aurrera, lan horiek baimendu eta lizitatuko dira. Horren guztiaren helburua da abendu-urtarrilean lan horiek egiten egotea.

3. Quercus generoko masei dagokionez, haiek direla-eta egindako jarraipenak adierazten du ernaberritze naturala gertatzen ari dela. Nolanahi ere, 2017ko udaberrira arte ezin izanen da ziurtatu lehengoratzearen gradu erreala. Une horretan zehaztuko da lehengoratzeko oihangintza lanak, basoberritzeak, landaketak eta abarrekoeak egin behar diren ala ez.

4. Basoen ikuspegi fitosanitario batetik, ez da organismo kaltegarriak detektatu.

5. Azkenik, eta galderaren edukian ez badago ere, ezagutzera ematen da kaltetutako ehiztarien sozietateekin ere bilera bat egin dugula. Bilera horretan ehiza antolatzeko planak aldatu dira. Halaber, konponbide batzuk eman dira ehiza larrirako, eta konpentsazio gisa Sabaitzako ehiza barrutia aldi baterako erabiltzeko aukera eman da, finka hori Nafarroako Gobernuarena baita.

Natur ingurunearen esparruan aurreikusitako ekintzak

1. Fauna populazioen jarraipena. Jarraitua eta jada hasia.

2. Izurrite eta gaixotasunen jarraipena. Jarraitua eta jada hasia.

3. Kaltetutako koniferoak ateratzea. Lan horiek Erdialdeko Partzuergoari lagatzeko erabakia toki entitateek onestearen zain gaude, arestian azaldu bezala eta horretarako jada azaldu dugun egutegiaren arabera.

4. Hariztien bilakaeraren jarraipena. Jarraitua eta jada hasia.

5. Lehengoratzeko-proiektuaren idazketa, beharrezkoa bada: 2017ko udaberria.

6. Harizti-eremuak lehengoratzeko oihangintza-lanak: 2017ko udaberria.

7. Boluntarioekin egin beharreko lanak, arestian aipatuak: 2017ko lehenengo hiruhilekotik aurrera.

Bestalde, ezagutzera ematen da Ministerioarekin hitz egiten ari garela, lehengoratzeko eta higa-

dura saihesteko ekintzetarako laguntzak lortzeko aukera aztertzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Iruñean, Lizarran eta Tuteran erresonantzia magnetikoen zerbitzua emateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñean, Lizarran eta Tuteran erresonantzia magnetikoen zerbitzua emateari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 7ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-16-PES-00333). Haren bidez, informazioa eskatzen du Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzua emateari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Zergatik atzeratu da Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzua ematen hasteko eguna?

Zerbitzua adostutako egunetan ez hasteko enpresak alegatu zuena izan zen kontratua betetzeko ekipamendu berriak erosi behar zituela. Ekipamenduak zerbitzua emateko kontratua esleitu eta berehala erosi ziren, zeren eta inbertsio hori egin baitaiteke bakarrik zerbitzua fede emateko moduan esleituta dagoenean.

Noiz egonen dira erabilgarri ekipo berri hauek: Iruñekoa eta Lizarrakoa, bi unitate berri gehi

laguntzako bat (Tuterakoa) ; Tuterarako, unitate bat gehi laguntzako bat (Iruñekoa)?

Enpresak 0 antzinatasuneko (2015) bi ekipamendu eskaini zituen 1. lotea betetzeko, eta 0 antzinatasuneko (2015) beste bi ekipamendu 1. lotea betetzeko. Horiek Nafarroako Ospitaleguneko, García Orcoyen Ospitaleko eta Reina Sofía Ospitaleko barrutietan kokatuko dira, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ematen dituen jarraibideak betez. Gaur egun, ekipamendu berri batekin lanean ari gara Iruñean eta Lizarran, eta beste berri batekin Tuteran. Biak ere 2016an erositakoak dira. Prestazio eta Itunen Kudeaketa Zerbitzuari informatu zaio gainerako unitate mugikor berriak gehituko dituztela proben deribazioa egungo ekipamenduen ahalmenaren % 85era iristen denean, halako moduz non beti ekipamendu berriak egonen baitira ospitaleetan sortzen den eskariari erantzuteko. Guztiaren buruan, lau ekipamendu egonen dira gehienez ere. Ez da logikoa ekipamendu berriak exijitzea egungo eskariarekin oraindik ere beharrezkoak izan ez direnean.

Tuterako osasun-barrutiak noiz edukiko du erresonantziatarako itxaron-gela?

Tuterako osasun-barrutikko itxaron-gela irailaren 6ean ezarri zen eta ordutik dago lanean.

Enpresak ba al dauka esleipenaren egunean zerbitzua emateko kaudimen tekniko eta ekonomikorik?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetatik deribatutako erresonantzia magnetiko bidezko esplorazioak egiteko laguntza-zerbitzua kontratatzeari buruzko esparru-akordioa arautu behar duen klausula administratibo partikularren

orriaren 8. puntuan ezarritakoari jarraituz, 2015ean zehar "Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, Kontratazio Mahaian, barruko ekitaldi batean, epean aurkeztutako proposamenen 1. gutun-azalean dagoen dokumentazioa kalifikatuko du, eta Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 61. artikulua (1.a) eta 1.b) idatz-zatietan aipatutako jarduketak egiten ditu, eta aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo zalantzaren bat sortzen badu, lizitatuazaleari errekerimendua egiten zaio aurkeztutako ziurtagiriak osatu edo zuzen ditzan, eta bost eta hamar egun natural arteko epe bat emanen zaio, inguruabarren arabera...

Kontratazio Mahaia, aipatutako 61. artikulua (1.c) idatz-zatian ezarritakoari jarraituz, 1. gutun-azal honen dokumentazioa zuzen aurkeztu duten edo aurreko lerrokadan aipatutakoaren arabera hura osatu edo zuzendu duten enpresariak onartuko ditu".

1. gutun-azalean, enpresek, besteak beste, eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen teknikoak dutela erakutsi beharko dute. Klausula administratiboetan exijitutakoa osatu ezean edo zuzendu ezean, enpresa ez zen onartua izanen kontratazio prozesuan.

Horrenbestez, Kontratazio Mahaia baloratu eta onartu egin zituen kaudimen tekniko eta ekonomikoa. Bestalde, kontratua sinatu zenetik, ez da zalantzarik sortu ez kaudimen ekonomikoari buruz, ez kaudimen teknikoari buruz ere.

Zer ezaugarri dituzte ekipo berri horiek?

Centro de Diagnóstico Granada SAK eskainitako erresonantzia magnetikoko ekipamenduen deskribapen teknikoak aurkeztu du –SIEMENS MAGNETOM AVANTO a Tim and a Dot System modelokoak dira–, non justifikatzen baita aparatuak baldintza teknikoan orrietan ezarritako ezaugarri tekniko guztiak betetzen dituela.

PPT betekizunak, 6.5. puntua		Ekipamenduak funtzionamenduan dagoela eduki beharreko ezaugarriak
Imanaren potentzia	Gutxienez ere 1,5 Tesla	1,5 Teslas
Gradienteen potentzia	gutxienez, 30 mT/m	33 mT/m ardatzeko; bektoreen batura-gradienteen errendimendua 57 mT/m da
Gradienteen azelerazioa	gutxienez, 120 mT/m	125 mT/m/s ardatzeko; hau da, bektoreen batura 216 T/m/s da
Ebaketaren gutxieneko lodiera:	gehienez, 0,1 mm	0.1 mm 2Dn eta 0.05 3Dn
RF kanalak:	gutxienez, 8	18 kanal
RF anplifikatzailearen potentzia	gutxienez, 15 kw	15 kw
RF sistemaren banda-zabalera:	100 db	100 db

GUTXIENEN APLIKAZIO KLINIKOAK	Ekipamenduak funtzionamenduan dagoela eduki beharreko ezaugarriak
Sekuentzia konbentzionalak: SE; TSE; IR; T2 ura kenduta; EG; koipea kentzea; difusioa; perfusioa; CISS, eta abar.	Eskatutako sekuentzia konbentzional guztiak dauzka; eta horietaz gainera, honako hauek: TurboIR, 2D/3D HASTE, SPACE, 2D/3D FLASH, DynaVIBE, 2D/3D MEDIC, 2D/3D TurboFlash, 3D GRE, 2D/3D FISP, 2D/3D PSIF, EPI, ce-MRA, ToF, TrueFISP, 2D FLASH, T1 IR, FatSAT, SPAIR, Dixon, LOTA, TONE, 1D PACE, 2D PACE, 3D ART, BLADE.
Mielo RM aplikazioa	BAI: 3D mielogramak, HASTE 3Drekin eta TrueFISP 3Drekin, xehetasun anatomikoak lortzeko
Angio RM aplikazioa	BAI: Angio SUITE pakete osoa
Colangio RM aplikazioa	BAI: Body SUITE pakete osoa
Bularreko RM aplikazioa	BAI: Breast SUITE pakete osoa
LCR fluxuaren aplikazioa	BAI: LCR fluxuaren kuantifikaziorako paketea, kardioko pakete aurreratuaren barruan
Zain barneko kontrasteko azterlanak	BAI
Bilakaerari buruzko azterlan konparatiboak	BAI

KONEKTIBITATEA	Ekipamenduak funtzionamenduan dagoela eduki beharreko ezaugarriak
Komunikazioko estandarra	Dicom
Bi norabideko konektibitate osoaren bermea	BAI
Bi norabideko interkonektioa, HCI eta PACSekin	BAI
Erreklamazioetarako eta egindako txostenak argitzeko linea irekia	BAI

Baldintza-orria betetzeko kontratatutako langileen zerrenda.

Honako hau da enpresak zerbitzua betetzeko aurkezten duen langileen zerrenda:

- Erizaintzako unibertsitate-diplomaduna: 3
- Erradiodiagnostikoko teknikari espezialista: 5
- Administraria: 2
- Erradiologiako sendagile espezialistak: 7

Enpresak zerbitzua betetzeko behar diren langile guztiak kontratatuzeko konpromisoa hartzen du, deribatzen zaizkion proben kopuruaren arabera; horrenbestez, lan-zamaren arabera egin beharreko txanda berriak eta ekipamendu berriak ezarriko ditu. Halaber, langileen kopuruaren igoera zehatza egiten diren kontratuen arabera aldatu ahalko da (lanaldi murriztuak edo lanaldi osoak, zerbitzuaren beharraren eta langileen baliagarritasunaren arabera), bai eta gaixotasunaren edo istripuaren ondoriozko balizko bajak, oporraldiak eta abarrekoak betetzeko ere.

Ekipo berriak zer egunetan erosi dira eta zein da ekipo berrien osasun-baimenaren data?

Enpresak informatutakoaren arabera, ekipamenduak aldi berean erosi ziren. Esleipenari buruzko ebazpena 2016ko martxoaren 21ean jaso zen. Une horretan, zehaztapenak, baldintzak eta balizko hornitzaileekiko amaierako negoziazioa konfirmatu ziren, eta apirilaren 13an erosi ziren ekipamenduak.

Irailaren 19an egiaztatu zen instalazioak eta dokumentazioa zuzen zeudela 1. loterako (Iruñeko eta Lizarrako osasun-barrutiak), haiek erabiltzeko ahozko baimena eman zen eta, azkenean, idatzizko baimena Osasuneko zuzendari nagusiaren irailaren 27ko 1138/2016 Ebazpenaz eman zen. 2. loterako (Tuterako osasun-barrutia) ikuskapen teknikoa abuztuaren 10ean egin zen eta osasun-baimena Osasuneko zuzendari nagusiaren abuztuaren 11ko 995/2016 Ebazpenaren bidez eman zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzuko itxarote-zerrendei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzuko itxarote-zerrendei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 7ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-16-PES-00334). Haren bidez, eza-

gutu nahi du Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako erresonantzia magnetikoen zerbitzuko itxarote-zerrenda, egunez egun, 2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko irailaren 26ra bitarte. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Itxarote-zerrendari buruzko informazioa, data jakin batekoa, egun horretan eskaeren erregistroak duen egoeraren argazkia da. Itxarote-zerrenda gisa kontabilizatzen dira zerrendan sarrera-data jakin bat dutenak eta egun horren ondotik zitaren bat eskatua izan arren zita hori ez daukatenak (erreserban daude).

Itxarote-zerrendaren datu ofizial gisa hilabete bakoitzaren azken egunaren gaueko itxarote-zerrendaren datua gordetzen da. Ezinezko zaigu gaur baino lehenagoko egunez eguneko itxarote-zerrendei buruzko informazio zehatza ematea.

ERRESONANTZIA MAGNETIKOAK	ERRESONANTZIA MAGNETIKORAKO ITXAROTE-ZERRENDA					(ANBULATORIOA ETA URGENTEA EZ DENA)		2016KO HILABETE BAKOITZEKO AZKEN EGUNEKOAK		
	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	
Iruña	5.587	5.453	5.451	5.401	5.299	4.958	4.978	4.837	4.814	
Tutera	1.859	1.799	1.489	1.028	720	459	475	429	364	
Lizarra	193	133	92	107	120	133	101	96	104	
SAREA	7.639	7.385	7.032	6.536	6.139	5.550	5.554	5.362	5.282	

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 19an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 7ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15/PES-00335), informazioa nahi baitu “Lehentasunezko programak eta itxarote-zerrenden estrategia” izeneko 540004 52800 1220 311100 kontu-sailari buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Kontu-sailaren xedea eta exekuzio zehatzak

Kontu-sail honen xedea da langileak –funtsean sendagileak eta erizainak– egiturazko izendapenaren bitartez kontratatzea, itxarote-zerrendak gutxitzeko eta lehentasunezko beste programa batzuetarako.

Osasun Departamentuaren aurreikuspena, kontu-sail honen xedeari buruzkoa, 2016. urtearen amaierara arte.

Ezin da zenbatespen zehatzik egin kontu-sail honen behin betiko exekuzioa izan daitekeenari buruz, zeren eta kontrataziorako eskura dauden sendagileen araberrakoa baita.

Eskatutako informazioa eduki bezain laster, igorri egingen dizugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, behar adina ikasgela ez edukitzeagatik ikasgela bakoitzeko 25 ikasleko ratioa berreskuratu ezin izan duten ikastetxe publikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, behar adina ikasgela ez edukitzeagatik ikasgela bakoitzeko 25 ikasleko ratioa berreskuratu ezin izan duten ikastetxe publikoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 7ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak (UPN) 9-16/PES-00336 zenbakiko idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hurrengo ikastetxeetan ezin izan da 25 ikasleko ratioa itzuli, behar beste ikasgela ez egoteagatik. Bikoiztu gabeko ikasmaita bakoitzeko 17 saio gehigarri eman zaizkie.

– Doña Mayor IPa: 2 maila, bikoiztu gabe

– Griseras IPa: 2 maila

– Urroz IPa: 2 maila

- Arrotxapea IPa: 3 maila
- Cardenal Ilundain IPa: 3 maila
- San Juan de la Cadena IPa: 4 maila
- Huertas Mayores IPa: 4 maila

Aldi berean, Hezkuntza Departamentua aipatutako ikastetxeetatik batzuk handitzearen bideragarritasuna aztertzen ari da, detektatu den beharrari konponbidea emateko. Horretarako, aipatutako ikastetxeen inguruetakoko populazioaren bilakaerari

buruzko azterlana egiten ari gara gaur egun. Hala-ber, garrantzitsua da ikasturtean bertan populazio mugimenduak baloratu eta aurreikustea, zeren eta ikasle batzuk behar baino beranduago sartzen baira ikastetxean edo/eta behar baino lehenago joaten baitira beste toki batzuetara.

Iruñean, 2016ko urriaren 28an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Hezkuntza Departamentuak bertan behera utzitako edo geroratutako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak bertan behera utzitako edo geroratutako jarduketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 7ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 31n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-16/PES-00337 zenbakiko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Egindako galderari erantzuteko esan beharra dago arrazoiak inbertsioetarako kontu-sailetan egindako blokeoetan dagoela, zeren eta ezin izan baitira egin aurreikusita zeuden obrak. Ekitaldi honetan, kontu-sail horietan eskuragarri dagoen dirua ez da handitu.

Hala eta guztiz ere, aipatutako proiektu guztiak egitea (bai etendakoak, bai atzeratutakoak) 2017ko amaierarako aurreikusita dago, aurrekontuei buruzko legearen egungo aurreproiektuan jasota dauden kontu-sailetan ageri den bezala.

Salbuespen bakarra Berriozarko pista estalia da; izan ere hori egiteko baldintza da 2017an horretarako aurrekontua egotea.

Iruñean, 2016ko urriaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Nafarroako ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak (UPN) 9-16/PES-00354 zenbakiko idatzizko galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Nafarroako ikastetxeetako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruz eskatutako datuak –ikasmaila, ikastetxea, herria, hizkuntza eredia eta titulartasun publikoa edo gizarte ekimenekoa zehaztuta– erantsitako dokumentuan ageri dira.

Iruñean, 2016ko azaroaren 14an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak Nafarroako ikastetxeetan

Ardatza	Guztira	%
Entzumenekoak	175	% 7,23
Mugimendukoak	313	% 12,93
Psikikoak	1.860	% 76,83
Ikusmenekoak	73	% 3,02
Ardatza, guztira	2.421	% 100,00

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak Nafarroako ikastetxeetan, etapan eta ikasmaien arabera

Ardatza	Etap	Ikasmaila	Guztira	%	
Entzumenekoak	Batx., LOMCE	Batxilergoko 1. maila LOMCE	11	% 0,45	
		Batxilergoko 2. maila LOMCE	8	% 0,33	
	Batxilergoa LOMCE, helduentzat eta bertaratzekoa	Batxilergoko 2. maila LOMCE, helduentzat eta bertaratzekoa	1	% 0,04	
	Erdi mailako HZ	2-EMHZ, EZLa	1	% 0,04	
	EMHZ, LOE	1-EMHZ, SiMiSa (Kualif)	1-EMHZ, SiMiSa (Kualif)	1	% 0,04
			2-EMHZ, IbAuEI (Kualif)	1	% 0,04
			2-EMHZ, InEIAu (Kualif)	1	% 0,04
	GMHZ LOE	1-GMHZ, ADFI (Kualif)	1-GMHZ, ADFI (Kualif)	1	% 0,04
			1-GMHZ, MeKuMa (Kualif)	1	% 0,04
			1-GMHZ, Giln (Kualif)	1	% 0,04
			1-GMHZ MeIn (Kualif)	1	% 0,04
	HE	3A	3A	1	% 0,04
			4A	5	% 0,21
			5A	12	% 0,50
	LH LOMCE	1 LH	1 LH	8	% 0,33
			2 LH	13	% 0,54
			3 LH	14	% 0,58
			4 LH	16	% 0,66
			5 LH	12	% 0,50
			6 LH	13	% 0,54
	DBH, LOMCE	1 DBH	1 DBH	13	% 0,54
			2 DBH	9	% 0,37
			2 LH	1	% 0,04
			3 DBH	7	% 0,29
			3 LH	1	% 0,04
			4 DBH	8	% 0,33
	Helduentzako irak. LOE P	MD3 LOE Bertaratzekoa	1	% 0,04	
	OLH	1-OLH IbML	1-OLH IbML	1	% 0,04
			2-OLH ZuAI	1	% 0,04
	LH Berezia	1- LHB, Zela	1- LHB, Zela	1	% 0,04
			3- LHB, JaBa	2	% 0,08
			3- LHB, Elek	1	% 0,04
			3-LHB, MeZO	1	% 0,04
LaLa	1- LT, ZuLa	2	% 0,08		
CBU	1 CBU	1 CBU	1	% 0,04	
		2 CBU	2	% 0,08	
		4 CBU	1	% 0,04	
Entzumenekoak, guztira			175	% 7,23	

Mugimendukoak	Batx., LOMCE	Batxilergoko 1. maila LOMCE	9	% 0,37
		Batxilergoko 2. maila LOMCE	4	% 0,17
	Batxilergoa LOMCE, helduentzat eta bertaratzekoa	Batxilergoko 1. maila LOMCE, helduentzat eta bertaratzekoa	1	% 0,04
	Arte Plastikoetako eta Diseinuko HZ, Erdi Mailakoa, LOE	1-EMHZ, IPGL (Kualif)	1	% 0,04
	Erdi mailako HZ	1-EMHZ, EZLa	1	% 0,04
	EMHZ, LOE	1-EMHZ, Merk (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMHZ, MEPL (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMHZ, AdKu (Kualif)	2	% 0,08
		2-EMHZ, Merk (Kualif)	1	% 0,04
		2-EMHZ, ZuAI (Kualif)	1	% 0,04
		2-EMHZ, EsEd (Kualif)	1	% 0,04
		2-EMHZ, SiMiSa (Kualif)	1	% 0,04
	GMHZ LOE	1-GMHZ, ADFI (Kualif)	2	% 0,08
		2-EMHZ, AFD	1	% 0,04
		2-GMHZ, ADFI (Kualif)	2	% 0,08
		2-GMHZ, EIOn (Kualif)	2	% 0,08
	OHO 1	1-OHO 1	1	% 0,04
		2-OHO 1	5	% 0,21
		3-OHO 1	4	% 0,17
		4-OHO 1	1	% 0,04
		5-OHO 1	2	% 0,08
		6-OHO 1	1	% 0,04
	OHO 2	1-OHO 2	1	% 0,04
		2-OHO 2	1	% 0,04
		3-OHO 2	1	% 0,04
		4-OHO 2	4	% 0,17
		5-OHO 2	1	% 0,04
	Hez. Ber. Ordezko gela	1-OHO.1 Ordezko gela	2	% 0,08
		1-OHO.2 Ordezko gela	3	% 0,12
		3-OHO.1 Ordezko gela	1	% 0,04
		3-OHO.2 Ordezko gela	2	% 0,08
	Oinarrizko Haur Hezkuntza (Hezk. berezia)	4 A (Hezk. berezia)	1	% 0,04
5 A (Hezk. berezia)		3	% 0,12	
HE	3A	8	% 0,33	
	4A	16	% 0,66	
	5A	22	% 0,91	
LH LOMCE	1 LH	20	% 0,83	
	2 LH	26	% 1,07	
	3 LH	23	% 0,95	
	4 LH	19	% 0,78	
	5 LH	16	% 0,66	
	6 LH	15	% 0,62	
DBH, LOMCE	1 DBH	16	% 0,66	
	2 DBH	19	% 0,78	
	2 LH	2	% 0,08	
	3 DBH	15	% 0,62	
	3 LH	2	% 0,08	
	4 DBH	7	% 0,29	
Helduentzako irak. LOE D	MD3 LOE Urrutiko hezk.	1	% 0,04	
Helduentzako irak. LOE P	MD3 LOE Bertaratzekoa	2	% 0,08	
OLH	1-OLH EMF	1	% 0,04	

		1-OLH IbML	1	% 0,04
		1-OLH EZaMa	1	% 0,04
		1-OLH AdZe	2	% 0,08
	LH Berezia	2-LHB, AdZeO	2	% 0,08
		2-LHB, MeZO	1	% 0,04
		3-LHB, OsGa	1	% 0,04
	HBU	1-HBU	4	% 0,17
		2-HBU	3	% 0,12
		4-HBU	3	% 0,12
Mugimendukoak, guztira			313	% 12,93
Psikikoak	Batx., LOMCE	Batxilergoko 1. maila LOMCE	9	% 0,37
		Batxilergoko 2. maila LOMCE	7	% 0,29
	Batxilergoa LOMCE, helduentzat eta bertaratzekoa	Batxilergoko 1. maila LOMCE, helduentzat eta bertaratzekoa	1	% 0,04
	Arte Plastikoetako eta Diseinuko HZ, Erdi Mailakoa, LOE	1-EMHZ, IPGL (Kualif)	2	% 0,08
		2- EMHZ, IPGL (Kualif)	1	% 0,04
	GMHZra S. Ikas.	GMHZra S. Ikas.	1	% 0,04
	Erdi mailako HZ	1-EMHZ, EZLa	6	% 0,25
		1-EMHZ, LaInGK	1	% 0,04
		2-EMHZ, EZLa	2	% 0,08
	EMHZ, LOE	1-EMHZ, Merk (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMHZ, MEPL (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMHZ, MEPL (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMHZ, SuGa (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMHZ, EsEd (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMHZ, AdKu (Kualif)	2	% 0,08
		1-EMHZ, InEIAu (Kualif)	3	% 0,12
		1-EMHZ, LoLo (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMHZ, MaEl (Kualif)	2	% 0,08
		1-EMHZ, Merk (Kualif)	3	% 0,12
		1-EMHZ, KiLa (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMHZ, NeAbP (Kualif)	2	% 0,08
		1-EMHZ, SiMiSa (Kualif)	5	% 0,21
		1-EMHZ, SoGa (Kualif)	1	% 0,04
		1-EMGM AGIn (Cualif)	1	% 0,04
		2-EMHZ, MEPL (Kualif)	2	% 0,08
		2-EMHZ, SuGa (Kualif)	1	% 0,04
		2-EMHZ, AdKu (Kualif)	5	% 0,21
		2-EMHZ, InEIAu (Kualif)	1	% 0,04
		2-EMHZ, MaEl (Kualif)	1	% 0,04
		2-EMHZ, NeAbP (Kualif)	1	% 0,04
		2-EMHZ, SiMiSa (Kualif)	2	% 0,08
		2-EMHZ, SoGa (Kualif)	2	% 0,08
	3-EMHZ, MaEl (Kualif)	1	% 0,04	
EMHZ, LOE Duala	2.EMHZ IIApIICo (Duala)	1	% 0,04	
GMHZ LOE	1-GMHZ, ADFI (Kualif)	2	% 0,08	
	1-GMHZ MeIn (Kualif)	1	% 0,04	
GMHZ, LOE Duala	1.GMHZ PGDK (Duala)	1	% 0,04	
OHO 1	1-OHO 1	8	% 0,33	
	2-OHO 1	16	% 0,66	
	3-OHO 1	5	% 0,21	
	4-OHO 1	10	% 0,41	
	5-OHO 1	14	% 0,58	

		6-OHO 1	14	% 0,58
	OHO 2	1-OHO 2	20	% 0,83
		2-OHO 2	18	% 0,74
		3-OHO 2	21	% 0,87
		4-OHO 2	15	% 0,62
		5-OHO 2	15	% 0,62
	Hezk. berezia. Ordezko gela	1-OHO.2 Ordezko gela	2	% 0,08
		2-OHO.1 Ordezko gela	2	% 0,08
		2-OHO.2 Ordezko gela	2	% 0,08
		3 A (Hezk. berezia) Ordezko gela	1	% 0,04
		3-OHO.1 Ordezko gela	3	% 0,12
		3-OHO.2 Ordezko gela	4	% 0,17
		4-OHO.1 Ordezko gela	3	% 0,12
		4-OHO.2 Ordezko gela	1	% 0,04
		5-OHO.1 Ordezko gela	1	% 0,04
		6-OHO.1 Ordezko gela	4	% 0,17
	Oinarrizko Haur Hezkuntza (Hezk. berezia)	3 A (Hezk. berezia)	1	% 0,04
		4 A (Hezk. berezia)	3	% 0,12
		5 A (Hezk. berezia)	6	% 0,25
	HE	3A	24	% 0,99
		4A	63	% 2,60
		5A	83	% 3,43
	LH LOMCE	1 LH	97	% 4,01
		2 LH	120	% 4,96
		3 LH	106	% 4,38
		4 LH	108	% 4,46
		5 LH	113	% 4,67
		6 LH	106	% 4,38
	DBH, LOMCE	1 DBH	77	% 3,18
		2 DBH	36	% 1,49
		2 LH	20	% 0,83
		3 DBH	25	% 1,03
		3 LH	18	% 0,74
		4 DBH	36	% 1,49
		CEP LOMCE	6	% 0,25
	Helduentzako irak. LOE D	MD3 LOE Urrutiko hezk.	1	% 0,04
		MD4 LOE Urrutiko hezk.	3	% 0,12
	Helduentzako irak. LOE P	MD1 LOE Bertaratzekoa	4	% 0,17
		MD2 LOE Bertaratzekoa	3	% 0,12
		MD3 LOE Bertaratzekoa	3	% 0,12
	OLH	1-OLH Nek. Lor. eta LK	2	% 0,08
		1-OLH Art. Gr.	1	% 0,04
		1-OLH Suk. eta Jat.	1	% 0,04
		1-OLH EIEI	1	% 0,04
		1-OLH FaMu	4	% 0,17
		1-OLH EMF	1	% 0,04
		1-OLH Bulnf	1	% 0,04
		1-OLH IIEs	1	% 0,04
		1-OLH EZaMa	2	% 0,08
		1-OLH Ze	3	% 0,12
		1-OLH AdZe	3	% 0,12
		2-OLH ZuAl	1	% 0,04
		2-OLH EIEI	2	% 0,08
		2-OLH EMF	1	% 0,04

		2-OLH EMF	3	% 0,12
		2-OLH Ze	2	% 0,08
		2-OLH AdZe	3	% 0,12
	OLH-B	2-OLH-B Nek. Lor. eta LK	1	% 0,04
		2-OLH-B SukJat	1	% 0,04
		2-OLH-B IIEs	1	% 0,04
	LH Berezia	1-LH Berezia KISZ	9	% 0,37
		1- LHB, JaBa	11	% 0,45
		1-LHB, OsGa	3	% 0,12
		1- LHB, Zela	5	% 0,21
		1- LHB, Elek	2	% 0,08
		1-LHB, LoNe	1	% 0,04
		1-LHB, LaAr	2	% 0,08
		1-LHB, ELIE	2	% 0,08
		1-LHB, ELGE	4	% 0,17
		1-LHB, ODTO	11	% 0,45
		1-LHB, AdZeO	6	% 0,25
		1-LHB, MeZO	2	% 0,08
		2- LHB, JaBa	11	% 0,45
		2- LHB, Elek	3	% 0,12
		2-LHB, LoNe	3	% 0,12
		2-LHB, LaAr	2	% 0,08
		2-LHB, ELIE	2	% 0,08
		2-LHB, ELGE	5	% 0,21
		2-LHB, ODTO	2	% 0,08
		2-LHB, AdZeO	16	% 0,66
		2-LHB, MeZO	2	% 0,08
		3- LHB, JaBa	7	% 0,29
		3-LHB, OsGa	2	% 0,08
		3- LHB, Zela	2	% 0,08
		3- LHB, Elek	2	% 0,08
		3-LHB, LoNe	4	% 0,17
		3-LHB, LaAr	2	% 0,08
		3-LHB, ELIE	2	% 0,08
		3-LHB, AdZeO	12	% 0,50
